

ARRASATE


PRESS

Arrasate 1991ko Uztailak 19, 115. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**IÑIGO
TXINTXURRETA,
Antzerkirako
jaiotako
mutila**



Jo ezak berriro

Santi Galanen bakardadea



**TXEKOSLOVAKIAKO
SARISIAN
· TALDE FOLKLORIKOA ·**

- Uztailak 24, asteazkena
- Gaueko 10.30etan
- Monterron parkean



Asier Guenetxea

SASIAIN sport

Errepide eta
mendiko bizikletak

**AUKERA
HANDIA**

Deba Garaiko
bizikleta-denda

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA



BERRI-BERRIAK



Escort



Orion



M MUGARRI

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Eburne Mujika

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

1448 erreketak eta bulda (2)

Arrasateko eliza nagusia -buldan irakur daitekeenez- betidanik egon da San Juan Bataiatzailearen adokaziopean. Erreketa suertatu zenean, arzipreste, erretore, oharkari edo prezeptore eta zenbait etekinlarik ziharduten garaiko arrasatearren bizitza izpirituala zaintzen. Zein izango zen orduko biztanlegoa...? *"quae notabilis et populosa fuerat"*..., hau da, izen oneko eta oso populatua, mugaketa horrek suposatzen duen erlatibotasunaz. Mila bat biztanle? Hortxe ibiliko zitzaion, harresien barnekaldeko jende kopuruari dagokionez.

Diru asko behar izan omen zuten eliza osterara eraikitzeko. Dena den, eskabidea labor geratuko ote zitzairen beldur edo, ez ziren motz geratu abade arrasatearrak erreketak sorturiko kalteak aipatzean. Ikus, bestela: *"Zeharo hondatuta gertatu da, barrunbe, apaingailu eta beste aretoak ez ezik, baita elizjantzi eta kanpaiak ere errauts bilakatu"*. Eta, noski, eliza horrela geratu bazen, gainerako eraikuntzak nola egongo ziren? *"Herriarrak pobretu egin dira, gehienak herriitik atera beharrean aurkituz...; herria mendikaldean dago kokatua eta bertan gari eta ardo gutxi biltzen da...; gutxi horrek areagotu egin du eliz-kultoaren murrizketa"*.

Egoera kaxkar hari bestelako itxura eman guran, eliz arduradunek indulgentzietako grazia eskatu zioten

Aita Sainduari. Bi bide desberdinez baliatzen ziren elizarantzeko jariora ziurtatzeko. Lehenik, hogeiko lekoaren erradioan bizi izan nahiz igarotzen zirenek, urteko zenbait egun berezitan elizara hurbilduz gero indulgentzia irabazten zuten. Bigarrenik, elizara azaldu ez arren, Aragoiko urrezko floreno bi edota Gaztelako erresumetan ohizko zuten 55 morabetino txanpoia ordainduta grazia beregana zitekeen.

Bazen beste aukera bat: hogeiko egunetan zehar elizaren berreraikitze lanetan ihardutea. Era horretan, antza, gehitu nahi zuten apaizek eliztarren debozioa, zeina berez handia ei zen: *"... fidelium devotio, quae ingens est"*.

Buldak babesten dituen indulgentziak erabateko barkamena ahalbidetzen zuelarik, garbi uzten zuen ere edozer gehiegikeriak eskomikuaren arriskua zekarrela. Diru bilketa arzipreste eta erretoreak administratzen zuten; inork horien borondatearen kontra dirua desbideratuz gero, eskomikatua geratzen zen eta, gainera, bere ondorengoei ere zigor berbera eror zekiekeen... ez bazuten dirua itzultzen.

Ez dakigu zenbateko laguntza jaso zuten eliz gizon haiek, teoriak behintzat, guttiz behartsu zen Arrasate hartan. Buldaren lekukotasunari zor diogu, aldiz, garai haietako erreferentzi txiki hau. Ez da gutxi.

Josemari Velez de Mendizabal

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA
PAPERPINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa
Otalora 1ean

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 94

ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

Euriaren zain nago

San Juanak bukatu zirenetik, ia hiru aste pasatu dira, baina herriko txoko askoren ondotik pasatuz gero, ez du ematen San Juanak bukatu direnik. Zergatik? Oraindik toki askotan pixa usaina ondo baino hobeto nabaritzen delako.

Normala iruditzen zait San Juantan, egun batetik bestera sortzen den zikinkeria eta egunez egun berritzen ziren usain txarrak kendu ezin izatea, baina handik hiru astera oraindik toki askotan arnasari eutsi beharra izatea gehiegi iruditzen zait. Gainera, kontuan hartzekoa da orain gutxi herriko plazan Udalak herriko garbiketarako ekipamenduaren erakusketara egin zuela. Tresna haiek ez dira erabiltzen? Gaizki erabiltzen dira? Erabiltzen badira, ez dute usain horiek kentzeko balio...? ez dakit, baina arraroa egiten zait euri zaparrada on batek egin dezakeena egungo garbiketarako tresna modernoek ezin egitea. Hori hala bada, euriaren zain gelditzen naiz.

Joxemari


Dendetan erderaz?

Herriko gozotegi batean gertatu zen aurreko igande batean. Bezeroari atenditzen zeudenez ez zuten euskaraz egiten.

Eskutan "Egunkaria" zekarren andre gazte bat heldu zen bere 9-10 urteko alabarekin eta berak mostradore alde batean pastelak hartzen zituen bitartean, beste aldean beretzako kafe kortaua eskatzeko esan zion, "Dame un café cortado" esaiozu" adieraziz alabari. Eta gero argitzen du: "Hainbeste eta gehiago daki gaztele-raz, baina moztu egiten da, ez da ausartzen. Honela errezago eskatuko du. Gero ere ikasi beharko du gaztele-raz eta..."


Ze harrotasun senti dezake haur honek euskaldun izateaz? Ze ziurtasun ematen diogu bizitzaren aurrean jokatzeko? Zertan ari gara haurrak euskalduntzen ingurua euskalduntzen ez badugu? Zer egin behar dugu euskaraz atenditzeko gauza ez diren dendariekin?

R. Goikoetxea.



Agur!

Agur bikoitza gaur egiten duguna. Zuri agur, irakurle, eta ondo pasau oporrak, hau izango bait da bakazioak aurreko azken alea. Eta agur **Joxe Aranzabali**, orain arte Arrasate Press eta ATBko zuzendari izan denari. Joxek atsedena hartu eta birziklatzeko asmoa du. Zortarik onena izan, Joxe, eta eskerrik




Joxe Aranzabal

asko. Irailean izango gara berriro zurekin, irakurle. Ondo izan.

Nora zoaz oporretan?




Maruja Souio
(langilea)
Galiziara noa, bertakoa naiz eta.



Igor Galdos
(ikaslea)
Hondarrabira joango gara, amapuntakoa hangoa delako, eta amak ere hara joan nahi duelako.




Elena Otxoa
(ikaslea)
Ni Portugaletekoa naiz eta Arrasaten nago oporretan. Batez ere, aldatzeagatik eta jende berria ezagutzeko asmoz etorri naiz Arrasatera.



Koldo Guridi
(langilea)
Galiziara joango naiz, Euskadi baino merkeagoa delako eta oso polita gainera. Azkenengo hamabi urteetan zortzi bider joan naiz Galiziara.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

ENARA 
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Memesa

79 42 22

Carrión
música, s.a.

Musika-tresna guztiak.
Probetarako aretoa.
Etengabeko eskaintzak.
Zerbitzu teknikoa. MIDI
informatikako
espezialitatea.

Manuel Iradier 20, GASTEIZ, Tfnoa: 945 - 23 07 49

ARTE LENIZ
koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEA

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubilagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (berduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
---	----------



19 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Monterron parkea, "Mamá está loca", gaueko 10.30etan.

Alai: "Delta Force 2", 7 eta 9.30etan.

- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

20

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Delta Force 2", 5, 7.30 eta 10etan.

- Kale antzerkia, "Occident Paradise", Trapu Zaharra antzerki taldearen eskutik, arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Txotxongilo emanaldia, "Bikate". Taun-Taun taldearekin, Monterron parkean gaueko 10.30etatik aurrera.

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

Kirol Agenda

Txirrindua

• • •

- Maalako jaien barruan, astelehenean arratsaldeko 7.30etan txirrindulari lasterketa.

21

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Como ser mujer y no morir en el intento", 5, 7 eta 10etan.

- Maalako jaiak: S. Frantzisko elizan meza nagusia 12.30etan; ondoren lunch-omenaldia kaleko jubilatuei.

- Debarako 12. bizikleta abialdi ekologista. Irteera goizeko 10etan.

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

22

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Como ser mujer y no morir en el intento", 7 eta 9.30etan.

- Maalako jaiak: Umeentzako jokoak eta txokolatada, arratsaldeko 4.30etan.

- Txirrindulari proba, 7.30etan, herri afaria. estradetan 9etan.

- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

23

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Como ser mujer y no morir en el intento", 7 eta 9.30etan.

- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

24

ASTEAZKENA

• • •

- Zinea: Alai. "Como ser mujer y no morir en el intento", 7 eta 9.30etan.

- Talde folklorikoaren emanaldia, "Txekoslovakiako talde folklorikoa", Monterronen, gaueko 10.30etan.

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

25

OSTEGUNA

• • •

- Zinea: Alai. "Como ser mujer y no morir en el intento", 5, 7.30 eta 10etan.

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz

Futbitoa

• • •

- "San Bartolome saria" Musakolako kiroldegian, 24 ordu futbitoan, ostiralean hasi eta larunbat gauera arte.


Igeriketa

• • •

- Estatuko Hegats-igeriketa Txapelketa, Musakolako kiroldegian hilaren 26, 27 eta 28an.

Liburuak

• **Hamar Beltx: Agatha Christie.** Txertoa argitaldaria. Aspaldi esan izan da euskalza-leen artean jendearen irakurza-letasuna pizteko oso egokia izango litzatekeela Agatha Christie edo Simenonen nobelak euskaratzea. Txertoa argitaldaria lehengoaren liburuaren artean klasiko bihurtu den hau eskaintzen digu, Koro Nabaroren itzulpenari esker.



Hamar lagun gonbidatu dituzte Beltzaren Uhartera. Denek dute ezkutatzeko zerbait. Uhartera egun ederrak igaro asmoz heltzen dira, baina laster hasiko dira gauza harrigarriak gertatzen. Beldurrak harapatuko ditu bisitariak.

Detektibe istorioa, baina detektiberik bakoa. Udan irakurtzeko primerakoa.

Literatura

• **Irakasle Eskolako Irakur Gida**

"Hemen datorkizu berriz ere, irakurle, beste era guztietako mila orri (in / de-) formatiboren artean erdi galduta, Irakur Gida 1991. Ez dezazula zakarrontzira bota.

Norbaitek, berari esker, Poloniatik etorritako Anna neskatxaren misterioa somatuko du eta mila urrutiko amets bezala bere bizitza beteko; besteren batek, ordea, eta "Beltza!, beltza!"



JAIALDIA

Sarisian Txekoslovakiako folk taldea

Datorren asteazkenean, gaueko 10.30etatik aurrera Monterron parkean, Txekoslovakiako Sarisian folklore taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da. Talde hau aspalditik dabil Txekoslovakiako folklorea erakusten munduan zehar, Europa eta Ameriketako 22 herrialdeetan izan da eta. Gainera, talde honek 1.600 saio baino gehiago eskaini ditu, baita telebista eta irrati askotan ekitaldiak eskaini eta diskoak grabatu ere.

Taldearen saioetan, Txekoslovakiako hainbat dantza, kantu eta musika ikusi eta entzuteko aukera izaten da. Sarisian folklore taldea 100 lagun baino gehiagok osatzen dute, eta afizionatuak izanda ere, profesional mailako ekitaldiak eskaintzen dute. Arrasaten ezezik, txekiarrek Antzuolan ere burutuko dute saioa.

buruaz ari gara, bere bederatzigarren pisuko etxebizitza ziztrina arrain librez betetako itsasoinmentsoa bihurtuko du.

... Liburuaren indarra; fikzioaren benetakotasuna.

Ez dezazula zakarrontzira bota, irakurle, Irakur Gida 1991 hau. Zuri ere, zure ikasleei ere, suerta dakizueke, berari esker, guri, oinezko irakurle apalak geuri ere, suertatu zaigun liluragarri bezain gozagarri".

Jaiak

• **Maala**
Ilgandean eta astelehenean

Maalako jaiak izango dira. Ilgandean eguerdiko 12.30etan meza nagusia izango da S. Frantziskoko elizan, kaleko hildakoen alde, eta eguerdiko 1.30etan luntx-omenaldia kaleko jubilatuentzat. Astelehenean, goizeko 8etan etxaflero jaurtiketa, arratsaldeko 4.30etan umeentzako jokoak eta txokolatada, 7.30etan txirridulari proba, eta ondoren, txikiteoa. Jaiei amaiera emateko, gaueko 9etan herri afaria egingo da Estradetan. Afalostean, dantzaldia, nagusientzako jokoak eta suzko erruberak izango dira.

• **Ferrerias**
Hurrengo ostiralean, hilak

26, Santa Ana jaiak direla eta, Ferrerias kalean herri afaria egingo da. Bertara joan nahi dutenek txartela lehenbailehen erostea komeni da, *Jose Ramon* harategian, *Artea* dendan edo *Carmen* janari-dendan.

Kontzertua

• **Txibisto**

Larunbatean, gaueko 11etan Bergarako Txibisto dantzalekuan kontzertua izango da. Bertan, RIP, Lusty Men eta Cicitatriz taldeek hartuko dute parte.

Antzerkia

• **Trapu Zaharra**

Larunbatean, arratsaldeko 7etatik aurrera, Trapu Zaharrak antzerki taldeak "Occident Paradise" lana antzetzuko du, herriko kaleetatik zehar.

• **Taun - Taun**

Larunbatean, gaueko 10.30etan, Taun - Taun txo-xongilo taldeak "Bi kate" izeneko obra eskainiko du. Sarrera doan.

Ekologia

• **Debarako abialdia**

Urtero bezala, igande honetan ere, goizeko 10etan aterako da Debarako bizikleta-abialdia Portaloitik. Abialdi hori antolatu dutenak, *Eki*, *Eguzki*, *Amilotx* eta *Mendia* bizirik ekologi taldeak izan dira.

Pastorala

• **Muskildiko Pastorala**

Ilgandean, arratsaldeko laurtertan, Muskildin aurtengo lehenengo pastorala antzetzuko dela eta, AEDk bertara joateko autobusak antolatu ditu. Autobusak goizeko 8.15etan aterako dira Garibai geltokitik.

Atzo Ramon Jauregi eta Xabier Arzalluzek adierazi zuten, ez dute asmorik Arrasaten gertatutakoagatik ezohizko elkartasun hori *casus belli* bihurtzeko; horrek, hain gustoko duten "paktu orokor" hori kolokan jarriko bait luke. PSE-PSOeko idazkari nagusiak, Arrasateko EAJko hautagaien jarrera gogor arbuiatu bazuen ere-"Ajuria-Eneako Paktuen bortxaketa"tzat joz-, ez zuen inolako neurririk iragarri, gertatutakoari erantzun berezia emateko".

(El Mundo egunkarian)

Agintari jeltzalearen arabera, herri batzuk daude koldarkeriagatik edo hautagai independente batzuk daudelako, ez dituztenak partiduek bidalitako aginduak betetzen, "eta hori da hain zuzen ere, Arrasaten gertatu zaiguna".


(Xabier Arzalluzek, El Correo Español egunkarian)

EAJ eta EAK, PSE-PSOeri dioten beldurragatik sinatu dute paktu hori".

(Aitor Orobengoa zinegotziak asteleheneko plenoan)

Ez diogu beldurrik PSOeri, baina nazionalistak garen aldetik, nahiago dugu HBrekin osatutako gobernuak, PSOerekin osatutakoa baino".

(Pedro M. Ruiz de Azua zinegotziak asteleheneko plenoan)



Erreformaren arabera, OHoko irakasleak bakarrik 6tik 12 urtera arteko umeei irakatsiko die. Zergatik? Ondorioak?

Hezkuntza ez da inoiz ondo egon, beraz etengabe erreforma eskatzen du.

OHOn lana egiten dugunontzat -eta OHOn lana egiteko prestatzen direnentzat noski- bakarrik 6tik 12 urtera arteko umeei irakasteko aukera ematea, lana mugatzea da; bi urte galtzen ditugu eta.

Bestalde, norberaren mentalitateari ere kalte handiak ekarriko dizkio lege berri horrek. Esate baterako, niri goi-zikloko umeekin, ume handiekin, lan egitea izugarri gustatzen zait, eta ez badidate uzten... Erreformak dio orain goi-zikloan lanean ari bagara, gero ere segitu ahal izango dugula. Ez dakit zer pentsa horretaz.

Lizentziatuak gu baino hobeak dira umeei eskolak emateko? Hori irakasle bakoitzaren kontua da. Ezagutza aldetik, lizentziatuek teorian gu baino gehiago jakin beharko lukete. Prestakuntza hobea izateak ez du esan nahi gero hobeto irakatsiko denik. Gainera, umeei irakatsi behar zaiena irakasteko orain arte gai izan garela uste dut, bekatu handirik egin barik. Gaia menperatu egin behar da, baina horri baino garrantzi handiagoa ematen diot irakasterakoan pedagogia eta psikologia erabiltzeari.

Erreformaren aurrean, ezkorra naiz. Plangintza moduan polita izan daiteke, baina praktikara eramatea zaila iruditzen zait.

Josu Izquierdo.
Irakaslea


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE



Zailtasunik handienak kanpokaldean egon dira

Parrokia berrizteko asmoa aurrera

Batzordeak lehen fasea amaitu lehen urtebetean

Orain urtebete hamalau herritarrez osatutako batzordea eratu zen, Mondragoeko parrokia eraberritzeko. Orduan ezarritako helburuen lehen fasea, proiektua zehaztea, amaitu berri dute. Talde honen lana Mikel Lasa eta Alberto Mendieta arkitektoen lanean oinarritu da, eurekin batera lan eginez.

Denbora honetan egindako azterketak parrokiak bere nortasunean azaldu nahi izan du, beti ere inguruko espazioa (herriko plaza, udaletxea, etab.) kontuan

hartuz. Jose Mari Astigarraga parrokoaren esanetan, aurkitu dituzten zailtasunik handienak kanpoaldekoak (sakristia, musika kioskoa...), koruak, alboko bi aldareak eta teilatua izan dira.

Zailtasunak zailtasun, batzordeak erabaki batzuk hatu ditu eta Gotzaitegira bidali, erakunde bien arteko adostasuna bilatu nahian. Ondoren Mondragoeko Udalarari aurkeztuko zaio, egitasmoa aurrera ateratzeko herriaren partehartzea nahi dute eta.

□ Dolmen-a Kurtzebarrin

Arrasate Zientzia Elkarteko kideek, dolmen-a aurkitu dute Kurtzebarri mendiaren barrenean. Oraindik zulaketa lanei ekin ez bazaie ere, dolmen-aren aurkikuntza oso interesgarria izan daitekeela adierazi zuen Zientzia Elkarteko kide batek. Dirudienez, zulaketa lanak irailean hasiko dira. Arrasateko zientzilarien ustez, Kurtzebarri barreneko dolmenean hezurdurak agertu beharko lirake; behintzat joan den mendean zabaldu gabekoa bada.

□ Deba ibaiaren alde

Ostegunean, EKI taldekoek deituta, Ederlan enpresaren aurrean manifestaldia burutu zen, enpresa honek ibaira egiten dituen isurketak salatzeko. Ekin-tza hau bailarako ekologistek Deba ibaiaren alde burutzen ari diren kanpainan kokatu behar da. Kanpainari amaiera emateko, igandean Debarako martxa burutuko da, Eki, Eguzki, Amilotx eta Mendia Bizirik talde ekologistek antolatuta.

JAIOTZAK

Atxa Kortabarria, *Ander* eta *Leire*. Uztailaren 8an.
Perez Diaz, *Mikel*. 9an.
Bolinaga Diaz, *Ibai*. 13an.
Mora Telleria, *Eider*. 14ean.

EZKONTZAK

Pedro Perez & M^a Carmen Escolar, uztailaren 11n. Zibilez.
Jose M^a Pozo & Miren Josune San Vicente, 13an. Elizaz.

BITXIEKIN MAITEMINDUAK

Bitxitegia

Erlojutegia

NAROKI

Erdiko kale, 23 Tel. 79 20 47 ARRASATE

zorzi

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Udal Gobernu berria

HBk, EAJk eta EAK elkarrekin lana egiteko konpromezua hartu zuten



Xabier Zubizarreta
HB
Alkatea, Gobernu Batzordeko lehendakaria eta ordezkari Mankomunitatean, Ur Partzuergoan eta Mendi Nekazaritzan.




Ino Galparsoro
HB
Lehen alkateordea, HBko bozeramaile, Gobernu Batzordekide, Pertsonal eta Haziendako lehendakaria eta INEMen ordezkari.



Antton Zumalde
HB
Kultura Batzordeko lehendakaria.




Isabel Zuazubiskar
HB
Auzoetako Batzordeko lehendakaria.




J. A. Ibarluzea
HB
Jai Batzordeburua eta Aukeako arduraduna



J. M. Loiti
EAJ
Bigarren alkateordea eta EAJko bozeramaile. Gobernu Batzordekide eta Hirigintza Batzordeko lehendakaria. Ordezkari Mankomunitatean eta Suradesan.



Juan Joxe Uriarte
EAJ
Gobernu Batzordekide eta Euskara Batzordeko lehendakaria.




Javier Aresti
EAJ
Hezkuntza Batzordeko lehendakaria.



P. M. Ruiz de Azua
EA
Hirugarren alkateordea eta EAKo bozeramaile. Gobernu Batzordekide eta Zerbitzu Batzordeko lehendakaria.




Ixabel Gallastegi
EA
Gobernu Batzorde kide eta Gazteria Batzordeko lehendakaria.



Bixente Etxebarria
EA
Gizarte eta Ongizate Batzordeko lehendakaria. Ordezkaria Mankomunitatean. Iturbide egoitzako arduraduna.

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia




Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE



Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75

ARRASATE



Hezibidek zuzenean
subentzionaturiko erakunde
eta proiektuak

• Eskola Politeknikoa	58.272.000 PTA
• ETEO.	12.000.000 PTA
• S. Viator ikastola	8.261.000 PTA
• Almen ikastola	8.260.000 PTA
• Irakasle Eskola	3.475.000 PTA
• Ahizke-Cim	2.000.000 PTA
• S. F. Xabier ikastola	1.950.000 PTA
• Plangintza eta Koordinazio Proiektuak	7.718.000 PTA
• O.S.E. Proiektua	900.000 PTA
• O.H.Oko Ingelesaren Proiektua	1.010.000 PTA
• Teknologi Proiektua	1.085.000 PTA
• Hezkuntz Sistemaren Berrikuntz proiektua	3.878.000 PTA
• "D. J. M. Arizmendiarieta" Ekitaldi Akademikoa	313.000 PTA
GUZTIRA	109.122.000 PTA

Hezibideren Batzar Nagusia

Denetara 3.000 milioi PTA banatu iaz

Hezibide Elkartek orain dela gutxi egin du Batzar Nagusia. Datozen urteetarako estratejia prestatzen saiatu ziren. Hezibide Elkartea hamar ikastetxez osaturiko kooperatiba da (Eskola Politeknikoa, Eteo, Irakasle Eskola, S. Frantzisko Xabier, S. Viator, Almen, Umezaintza, Jose Arana, Loramendi eta Ahizke). Kooperatiba horren kezka bere ardurapeko ikastetxeak Europako hezkuntzaren eskakizunetara egokitzea da. Horretarako beharrezkoa da ikastaro egokiren bidez irakasleak behar bezala prestatzea. Hezibide Elkartea bi ekintza-mota prestatzen arduratzen da,

pedagogia-ekintzak eta azpiegitura ekintzak. Pedagogia-ekintzen bidez, hezkuntza-erreforma aurrera atera nahi da, eta ekintza horiek azpiegitura-ekintzen bidez finantzatzen dira. Goian ageri den taulan ikusten den bezala, gastuak nahiko handiak dira, guztira 3.000 milioi pezeta inguru (1.700 milioi inguru irakaskuntza arautuan, 900 milioi irakaskuntza ez arautuan eta 346 milioi bestelako inbertsiotan). Gastu horiek era diferentetean finantzatzen dira: %16 gurasoek ordaintzen dute, %73 erakunde ofizialek eta %11 beste erakunde batzuk (kooperatibek, etab.).

Usteak uste

Agur eta banoa, irakurle. Niri tokatzen zait txanda oraingoan. Arrasate Pressek hiru urte beteko ditu laster eta zutabe honek ere bi urte pasatxo izango ditu. Gauza asko eta asko intuizioz eta ekinaren ekinez atera ditugu aurrera, ez horretarako bereziki gaituak geundelako, nire kasuan behintzat. Horregatik, moztu, atsedena hartu eta egindakoaz hausnartzeko tenorea heldu zaidala iruditzen zait.

Banoala diotsut, eta agur. Baina irailaren lehen ostiralean zure etxeko postontzian izango duzu Arrasate Press, ostiralero bezala. Orain artean gertatu den legez, pertsona baten joanak ez duelako aldizkaria baldintzatu. Zenbait aldaketa egotea, berriz, guztiz normala litzateke.

Zutabe honen irakurle izan zaitudan hori konturatuko zinen nahi baino gehiagotan, eta zuzen asmatu gura izan arren, usteak ustel irten zaizkidala. Dabilenari gertatzen zaiola dio esaera zaharrak eta bere usteak plazaratzen dituenari, esango nuke nik. Zerbait zuzen aterako zitzaidanez, bertsolariarena esango dizut, txarto esanak barka eta ondo esandakoekin zeuk ikusi.

Banoa, bai. Esperientzia polita eta aberatsa izan da. Zuentzat ere horrela izango zelakoan, agur.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxabehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE

Dorletako lehen Kriteriuma



Enrike Alonso arrasatearra, lasterketa polita egin nahian burubelarri saiatu zen. Dena dela, argi gelditu zen erlojuaren aurkako probak ez direla aproposenak berarentzat. Saiatu arren, atzean samar gelditu zen. Hala ere berdin dio, jendeak gustora baino gustorago txalotu zuelako arrasatearraren ahalegina.



Txirrindulari profesionalek, denboraldian zehar askotan ikusten dute elkar. Hala ere, batzuk alde batean dabilzanean eta besteak beste batzuetan, bolada luzeak pasatzen dituzte hitz egiteko aukera barik. Igandekoa moduko lasterketak ondo datozkie agurtu eta berba egiteko. Lasterketa hasi aurretik behintzat, **Ruben Gorospek** ez zuen nahi izan aukera hori alperrik galtzea.



Javier Elorriagak aspaldi samar utzi zion bizikletan ibiltzeari, ez ordea txirrindularitzari. Igandean Gatzagako maldak igo zituen, baina ez txirrinduan, bizikletan. Noren ondoren izango eta Mikel Zarrabeitiaren atzetik. Izan ere, Zarrabeitia, Elorriagaren moduan, Matienakoa da. Ez du irakasle txarra bizkaitar gazteak.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABAETA Tfnoa: 79 91 84

URONDO
elektrizitatea




Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

VE ECUADOR

Kontzeziño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Xabier Lazpiurrek oso lasterketa polita egin zuen eta ondorioz sailkapeneko seigarren postua lortu. Atxalbarrak izugarritzko animoak jaso zituen ikusleengandik. Jendea beroi ikusteko gogo handiz zegoen, izan ere aurten ia ez du lasterketa batean ere parte hartu. Podiumera igotzerik lortu ez bazuen ere, Xabier Lazpiurrek gustora utzi zituen zaletuak.



Azkenean, podiuma Julian Gorospe, Piotre Ugrumov eta Aitor Garmendiak osatu zuten. Eurak izan ziren igandeko txalo handienak jaso zituztenak. Orrialde hauetatik zorionik beroenak hirurei, baita antolakuntza lanetan ari izan ziren guztiei ere.

Julian Gorospe izan zen lasterketaren irabazlea. Ibilbide erdian bazirudien txapela Piotre Ugrumovek eramango zuela, baina Gatzagako maldetan gora mafiariarra izan zen onena. Julianek ondo erakutsi zuen erlojuaren aurkako probetan duen maila handia.



ARRASATEko UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasleentzat bekak ematen ditu. Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin 79 09 00 tfnora., edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
ROSA OTADUI
Telefonia:
**AMETS B. DE
GEBARA**
Erlojua:
HIRIART OTXOA
Afarria:
ANUSKA ELORZA

Zenbaki sarituak:

Clio autoa:

62.546

Kanarietarako bidaiak:

47.405




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA


Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 20
ARRASATE

otz-Motz

LEHIAKETA



KATAIDE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



BASKOTOUR
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE


MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12
ARRASATE

txutxumutxuak



AEDko emakume-taldeko 28 andra **Paris** aldean ibili dira ekainaren 5etik 10era. Bertan, inguruko museo eta bazter politenak ikusi ondoren, pozik itzuli dira Arrasatera. Primeran ibili direla esan beharrik ere ez dago, aurpegi irrifartsu horiek ikusita. Hau izan da antolatu duten lehen bidaia, baina ez azkena; datorren urtean Holandarako haizea omen dute eta. Zorionak, eta segi horrela!



Kalistroetan gazteek denetarik egiteko aukera izaten dute. **Juan Manuel Fernandez** gasteiztarrak, kalistroari erabiler berria eman dio, eskaladan entrenatzeko erabiltzen du eta. Juan Manuelek Eskola Politeknikon ikasten du eta normalean kiroldegiko rokodromoa erabiltzen du entrenamendurako. Hilean behin edo, kalistroetako buelta egiten du; ordubetea gutxi gorabehera.

Asteazken eguerditik ostiralera bitartean, AEDk antolatutako **Udalekuetan** dabilzan 35 ume *Lizargaraten* egon ziren, lau monitoreren aginduetara. Lehen gaua babeslekutik kanpo pasatzeko asmoa bazuten ere, ordubietan, hotza zela eta, barrura sartzea erabaki zuten.

OSKAR & MIKEL

TRIKITILARIAK

- Erromeriak
- Dantzaldiak
- Jaiak
- Ezkontzak
- Afariak
- ...

Tfnoak:

(945) 22 95 71
27 53 55



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Izen
PROPIOAK



Beste ume askoren moduan, **Mikel Etxenagusiak** lepoan painuelo gorria lotu, eskuan periodikua hartu eta herriko plazara joan zen, zezenei aurre egiteko asmotan. Batek daki kartoizko zezenen aurrean korrika zihoala zer aurpegi jarri zuen. Argazki-makina ikusita hartu zuen ezustekoarekin jarri zuenaren antzerakoa balitz, ikustekoa izango zen. ▶

● **Miriam Lelbar**, 27, mondragoetarrak lehen saria irabazi du Portugaleteko Udalaren II. Ipuin Lehiaketan, "Askatasuna" ipuinarekin. Miriamek Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Gaur egun euskara irakasten du ETEOn.

● **Jon Andueza**, 25, kazetari mondragoetarrak Rikardo Arregi saria irabazi du bigarren aldiz jarraian, herri prentsa sailean, "Berrigara" aldizkarian argitaratutako artikulu bati esker. Erreportaiak Golkoko gerra zuen gai. Arrasate Pressen eta Berrigaran lan egin ostean, gaur egun ATB dihardu lanean.

● **María Luisa Peña**, 27, gizarte laguntzaile mondragoetarra Txilera joan da sei hilabeterako, Espainiako gobernuak behartu txiletarrei laguntzeko programa baten barruan. Donostiako gizarte laguntzaileen eskolan ikasi eta gero, Mondragoeko udaletxean egin zuen lan, bi urtebetez.

◀ Pozik baino pozago bildu genituen **Tere Okina**, **Ainhoa Lasaga** eta **M. del Mar Martinen** ordez etorri zena *Trikiti* dendan. Izan ere, oporrak hartu aurretik Zotz-Motz lehiaketako azken irabazleak izan genituen. Zorionak eta ondo pasatu oporretan!



LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

Galan boxeolariaren bakardadea

Gaur egun, Galan anaiak dira Arrasateko boxeomunduan ari diren bakarrak. Santi boxeolaria da, eta Amalio bere entrenatzaile eta managerra.

Santik 26 urte ditu, 60 kg eta 1,69 m. Izatez arrasatearra da, eta bizibidez iturgina. Oinarrizko ikasketak ditu, eta Espainiako txapelduna izana da, pisu arineko amateur mailan. Nazioartean ere hainbat aldiz jokatu izan du. Gehienetan irabazle suertatu da.

Beste kirolak ez bezala, Arrasaten boxeoa nahiko "kirol" ezezagun, ezohizko eta bitxia dela esan dezakegu. Hala ere, nahiz eta herritarrengan behar bezala errotu gabeko kirola izan, historiari begira boxeoa orain dela hogeitau urte bino lehenago sortu zen gure herrian. Garai hartako izen ezagunenak Lolo Alvarez eta Santixo ditugu. Gaur egun, berriz, beste Santi bat da ezagun, Santi Galan, hain zuzen.

Santi, Amalio bere anaiari esker sartu zen boxeomunduan. Amalio boxeolari ohia

da, garai batean Espainiako txapelduna izandakoa. "36 urte ditut, eta dagoeneko boxeoa utzia daukat, zaharregia bait naiz horretarako. Orain Santiren managerra eta entrenatzailea naiz eta ia egun osoa elakarrekin pasa-

tzen dugu, ni ere iturgina naiz eta".


Prestakuntza

Boxeolari ona izateko egunero entrenatu beharra dago, eta hori da hain

zuzen ere, Galan anaiek egiten dutena. "Egunean gutxienez ordu t' erdi ari izaten gara entrenatzen. Bertan, ohizko gimnasiaz gain, ariketa bereziak landu behar izaten ditugu, sokasaltoka, asaltoak, zaku-kolpeak, etab". Borroka-eguna baino aste batzuk lehenago entrenamendu bereziak egiten dituzte, eta elikadura ere zaindu behar izaten dute, pisua zaintzea ezinbestekoa baita edozein boxeolariarentzat. "Beti gaude pisuaren gainean, 60 kgtik pasaz gero ezin dugu eta borroketan parte hartu".

Azpiegitura

Arrasaten boxeotalerik ez dagoela eta, Galan anaiak San Andres Futbolaldeko boxeosailean daude, eta elkarlanean ari dira. Kiroldegiak utzitako lokal batean entrenatzen dute, baina lokala hutsik dago. "Sabaitik zintzilik dagoen zaku ziztrin hau besterik ez dugu. Boxeoko materiala oso garestia da. Hori dela eta, bi borroka antolatu genituen, diru piskat lortu asmoz, bai-



Sakuari aurrez aurre erasoan..

Izen
PROPIOAK



Beste ume askoren moduan, **Mikel Etxenagusiak** lepoan painuelo gorria lotu, eskuan periodikua hartu eta herriko plazara joan zen, zezenei aurre egiteko asmotan. Batek daki kartoizko zezenen aurrean korrika zihoala zer aurpegi jarri zuen. Argazki-makina ikusita hartu zuen ezustekoarekin jarri zuenaren antzerakoa balitz, ikustekoa izango zen. ▶

● **Miriam Lelbar**, 27, mondraoetarrak lehen saria irabazi du Portugaleteko Udalaren II. Ipuin Lehiaketan, "Askatasuna" ipuinarekin. Miriamek Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Gaur egun euskara irakasten du ETEOn.

● **Jon Andueza**, 25, kazetari mondraoetarrak Rikardo Arregi saria irabazi du bigarren aldiz jarraian, herri prentsa sailean, "Berrigara" aldizkarian argitaratutako artikulu bati esker. Erreportaiak Golkoko gerra zuen gai. Arrasate Pressen eta Berrigaran lan egin ostean, gaur egun ATB dihardu lanean.

● **María Luisa Peña**, 27, gizarte laguntzaile mondraoetarra Txilera joan da sei hilabeterako, Espainiako gobernuak behartsu txiletarrei laguntzeko programa baten barruan. Donostiako gizarte laguntzaileen eskolan ikasi eta gero, Mondraoeko udaletxean egin zuen lan, bi urtebetez.



◀ Pozik baino pozago bildu genituen **Tere Okina**, **Ainhoa Lasaga** eta **M. del Mar Martinen** ordeztu zena *Trikiti* dendan. Izan ere, oporrak hartu aurretik Zotz-Motz lehiaketako azken irabazleak izan genituen. Zorionak eta ondo pasatu oporretan!

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

Galan boxeolariaren bakardadea

Gaur egun, Galan anaiak dira Arrasateko boxeomunduan ari diren bakarrak. Santi boxeolaria da, eta Amalio bere entrenatzaile eta managerra.

Santik 26 urte ditu, 60 kg eta 1,69 m. Izatez arrasatearra da, eta bizibidez iturgina. Oinarrizko ikasketak ditu, eta Espainiako txapelduna izana da, pisu arineko amateur mailan. Nazioartean ere hainbat aldiz jokatu izan du. Gehienetan irabazle suertatu da.

Beste kirolak ez bezala, Arrasaten boxeoa nahiko "kirol" ezezagun, ezohizko eta bitxia dela esan dezakegu. Hala ere, nahiz eta herritarrengan behar bezala errotu gabeko kirola izan, historiari begira boxeoa orain dela hogeitau urte bino lehenago sortu zen gure herrian. Garai hartako izen ezagunenak Lolo Alvarez eta Santixo ditugu. Gaur egun, berriz, beste Santi bat da ezagun, Santi Galan, hain zuzen.

Santi, Amalio bere anaiari esker sartu zen boxeomunduan. Amalio boxeolari ohia

da, garai batean Espainiako txapelduna izandakoa. "36 urte ditut, eta dagoeneko boxeoa utzia daukat, zaharregia bait naiz horretarako. Orain Santiren managerra eta entrenatzailea naiz eta ia egun osoa elakarrekin pasa-

izen dugu, ni ere iturgina naiz eta".


Prestakuntza

Boxeolari ona izateko egunero entrenatu beharra dago, eta hori da hain

zuzen ere, Galan anaiek egiten dutena. "Egunean gutxienez ordu t'erdi ari izaten gara entrenatzen. Bertan, ohizko gimnasiaz gain, ariketa bereziak landu behar izaten ditugu, sokasaltoka, asaltoak, zaku-kolpeak, etab". Borroka-eguna baino aste batzuk lehenago entrenamendu bereziak egiten dituzte, eta elikadura ere zaindu behar izaten dute, pisua zaintzea ezinbestekoa bait da edozein boxeolarientzat. "Beti gaude pisuaren gainean, 60 kgtik pasaz gero ezin dugu eta borroketan parte hartu".

Azpiegitura

Arrasaten boxeotalderik ez dagoela eta, Galan anaiak San Andres Futbolaldeko boxeoa sailean daude, eta elkarlanean ari dira. Kiroldegiak utzitako lokal batean entrenatzen dute, baina lokala hutsik dago. "Sabaitik zintzilik dagoen zaku zitrin hau besterik ez dugu. Boxeoko materiala oso garestia da. Hori dela eta, bi borroka antolatu genituen, diru piskat lortu asmoz, bai-




Sakuari aurrez aurre erasoan..

na gauzak ez ziren guk uste bezain ondo joan, eta 200.000 pezetako zuloa egin genuen. Azkenean pisu bat erosteko 48.000 pezeta ordaindu behar izan genuen gure poltxikotik”.

Azpiegiturez gaizki dabilzala eta, sarri Gasteizera joan behar izaten dute entrenatzera. Bertan, behar bezala prestatutako lokalak daude, eta gainera, bertako boxeolariekin entrenatu eta borrokatzeko aukera dute, Arrasaten ez bait dago sparring-ik lortzerik.

Borrokak

"Borroka-eskaintza ugari badago ere, guk uretan hamabiren bat egiten ditugu, hilean bat. Borroka bakoitzeko 60.000 pezeta inguru ordaintzen digute, eta egia esan ez da asko, bere aurka jokatzeko duteneko 200.000 pezeta baino gehiago kobratzen bait dute”.



Saparring-ik ezean, Galan anaiek elkarrekin entrenatzen dute.

Arrasaten bi borroka egin dira azken aldi honetan. Lehenengoan 800 ikusle inguru egon ziren, eta bigarrenean 300. Borrokkak antolatzeko diru asko behar da, eta asko-

tan antolatzailak galtzen iriteten dute. “Orain irailean Arrasaten egingo den Espainiako txapelketa prestatzen ari gara. Horrek milioi bat pezetatik gorako gastua

erreportaia

dakar, eta oso zaila da kopuru hori sarrerekin lortzea. Beraz, ikusi egin behar propagandarekin ordaintzea lortzen dugun”.

Boxeoa EHan

"Euskal Herrian boxeorako zaletasuna badago egon. Gertatzen dena da laguntza handirik ez dagoela, borrokkak antolatzea nahiko garestia dela, eta bertako boxeolari gutxi dagoela. Bestela, jendea oso gustatzen zaio boxeoa ikustea. Gure inguruan Ordizia izango da boxeorako zaletasun handiena duen herria”.

Orain arte komunikabideetan boxeoa nahiko baztertuta egon bada ere, badirudi badatorrela buelta. Telebistan behintzat gero eta tarte zabalagoa hartzen ari da, eta hori jendeak gogoko duen adierazgarri izan daiteke, noski.

“Telebista mesedegarria da guretzat, baina kontuz ibili behar da telebistarekin, askotan errealitatea eta fantasia nahiko nahasturik ematen bait digu. Begiratu besterik ez dago zorioneko “Rocky”ri. Pelikula bezala oso polita eta ikusgarria da, baina ez da errealitatea, edo guk bizi dugun errealitatea behintzat. Adibidez, ni ez naiz inoiz groggy egon, ezta nik ezagutzen ditudan boxeolariak ere. Hala ere, gure bizitza gogorragoa dela iruditzen zait”.

Boxeoa eta sexu-harremanak

Hainbatek kontu hutsa dela pentsatuko badu ere, beti esan izan da -batez ere boxeoa eta futboleko txarra dela, edo ez dela bat ere komenigarria, borroka-eguna edo partidu garrantzitsu bat jokatu baino egun batzuk lehenago sexu-harremanik izatea. Ondoren, badirudi, futbol-munduan behintzat teoria hori nahiko zaharkitua geratu dela eta ez diola ia inork kasu handirik egiten. Hala ere, guztiek ez dute fede hori galdu, eta boxeolari askok eta askok horretan sinisten dute oraindik. Galan anaiek ere ez dute ezetz esaten. “Borroka-eguna baino 20 egun lehenago harreman-sexualak izanez gero, gorputzaldi txarragoa izaten dut borrokarako, eta galtzeko arriskua askoz ere handiagoa izaten da. Nik ez dakit zein izan daitekeen horren arrazoia, baina esperientziak hori hala dela erakutsi dit. Beraz, irabazi nahi izanez gero, borroka baino hiru astebete lehenago zaintzen hasi behar. Ez dago besterik.”

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak


Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

LASO ARREGI Argazkia

Errebelatua ordu batean


Kamara Konpaktuak

• Konikoa MR 640 AF	22.000 PTA
• Chinon AF 3001	18.500 PTA
• Chinon Handy ZOOM	29.900 PTA
• Fuji AF 160 TELE	21.000 PTA
• Kodak 5.500 AF	16.000 PTA
• Kodak 5.900 TELE	19.900 PTA
• Pentax AF	17.500 PTA
• Pentax AF	17.500 PTA
• Pentax ZOOM 70x	32.000 PTA
• Pentax ZOOM 90	37.500 PTA
• Ricoh FF9 AF	18.900 PTA
• Canon Prima 4 AF	14.900 PTA
• Nikon TW 20 AF	23.800 PTA



Reflex kamarak

• Zenit 12. Ob/ 50mm	10.900 PTA
• Zenit 12 XP 50mm	11.950 PTA
• Practica MTL 50 Ob/50mm	21.500 PTA
• Exakta MS 14 Ob/Zoom 35-70	24.500 PTA
• Canon EOS 1000F Obs/Zoom 35-80 80-200 AF ..	87.500 PTA
• Minolta dinax 5000i Ob/AF 50mm	47.500 PTA
• Minolta dinax 5000i Ob/AF Zoom 35-80	55.995 PTA
• Minolta dinax 5000i Ob/AF Zoom 35-105	65.900 PTA
• Minolta dinax 7000i Ob/AF 50mm	69.900 PTA
• Minolta dinax 7000i Ob/AF Zoom 35-80	79.900 PTA
• Minolta dinax 7000i Ob/AF Zoom 35-105	89.900 PTA



DGFA diapositibak errebelatu eta guzti (24+3)

Udarako eskaintza


1-	700 PTA
3-	1.875 PTA
6-	3.600 PTA

TVS eskaintza hobeak San Juan Auzoan.


Bihotzeko ganbarak.

LABURPENA:
Gorkaren gurasoaren susmoak baieztatu egiten dira beren semea Martarekin ohean topatzen dutenean...

3. atala




Ze arraio egiten dozue hemen??!!




Baina nola...? Eta Olite...


Amak hanka apurtu xok eta zuek hemen narrutan, non eta geure ohean...!!!




Alde, alde hemendik. Egingo xuagu berba gero, amak ahean sartu beharra xaukak eta... Sinistu be ezin xuat egin...!



Ze seme daukagu, Mertxe? Hain txarto hezi dogu?



Begira, Juan Mari: geuk erakutsi xotsagu inori kalterik ez egitekotan, bere gogoa bete behar dauela, bere buruari trabak jarri barik...



Inportanteena besterik dok, baina. Narrutan egin gura badabe, egin dagiela kontuz ibilita... Oraingoz etxuak amandre bihurtu gura.

HURRENGO ASTEBURUAN...




"Devorame otra vez..." 🎵



Kaka zaharra...!

Putada galanta...! Eta gainera, egiten dauen hotzaz...!



Begitu ze ordu dan, Gorka...
Pasatu egiten haiz, etzegok
honela jarraitzerik...



Bai ama, igoal arrazoia daukazu, baina ez
dot ia ezer edan, Martarekin egon besterik
ez dot egin.



Begira, Gorka, badakik aita eta bixok ezkondu egin
behar izan gebala... elixatik. Etxaten bat ere gusta-
tuko zeuei antzerakorik gertatzea neuk zerbait egin
neiken bitartean, behintzat...




HURRENGO ASTEAN...



Gorka, ez zaidak hile-
koa etortzen, eta ia lau
egunetako atzerapena
da...


ETA ESAN BEZALA...



Begitu, Marta; egixa
esan, nik ez daukot
ideia haundirik hone-
taz, baina gaur bertan
egin dogu berba amak
eta bixok... Arratsal-
dean botikara lagun-
duko zaitut froga egi-
tera... Ikusten?, lehe-
nago edo beranduago,
farmaziatik pasa be-
har...



Ama, gogoratzin zara ze ibili
ginan komentetan atzo...?
Ba... Martari etxako hilekoa
etortzen...



Baina ze?
Beno, la-
sai; frogak
egin arte
etzegok
jakiterik
eta. La-
gundu
egin be-
harko dok
botikara,
hi!



FARMACIA AZCOAGA

91-09-10

c/ Ferrerías 1

Tel : 791515

MONDRAGON

Azterketa Klinikoa

Paziente : MARTA


Heurdunaldi frogak egin ditugu, gernu azterketaren bidez.

Azterketaren frogak zere eman du: EZEZKOA

Uste dot zertxobait ahaztu egin xakula.



Ama? Ezezkoa izan da!! Ezetz emon dau!!




Marta, hau ospatu egin behar xonago, ba!



"Aita-semeak tabernan daude, ama-alabak jokoan..." 🎵🎵



TABERNAN...



Hi, Gorka, hori ez da hire aita? badaki Martarekin habilena?



Bai, tipo, egon hadi lasai!

Hi, hori ez da ba hire semea? Eta aldameneko neska ez da ba kojuaren alaba?



Bingo! Bixetan asmatu dok!

Elkarrekin zabiltzak; ze kulpa dauko ba alabak aita putakume izateaz?



AMAIERA.

Ifigok 24 urte ditu. Ikasketak Eskola Politeknikoan egin zituen, eta orain Roneon ari da lanean. Azken aldi honetan oso ezaguna egin da herrian, besteak beste, antzerki-munduan erakutsi duen trebetasuna dela medio.

— Iñigo, zu saltsa guztietako perrexila zara ez?

— Beno, ez dakit saltsa guztietakoa naizen, baina askotakoa bai behintzat. Orain, "Tunantes del Norte" antzerki-taldean, Konpartsan eta Txarangan nabil, gero ihauterietan. Amaiaiko festibalean ere parte hartzen dut.

— Hainbeste taldetan sartuta egoteak lan handia egin beharra ekarriko du. Zergatik hartzen duzu hainbeste konpromezu?

— Beno, lan handia egin behar dela egia da. Beti ibili behar zara hara eta hona geratu gabe, eta buruhaustek ugari izaten dira; hala ere, niri izugarri gustatzen zaizkit halako saltsak, eta oso ondo pasatzen dut gainera. Egia esan, ez dut aspertzeko astirik izaten.

— Egiten duzunetatik zer duzu gustokoen?

— Antzerkia. Besteak ere politik dira, baina guztietatik bat aukeratzekotan, begiak itxita, antzerkia hartuko nuke.

— Nola hasi zinen "Tunantes del Norte" taldean?

— Egia esan, nik ere ez dakit nola hasi nintzen. Lehenengo "Gurea" okupatu zen, gaztetxea egiteko. Gero, bertako lokalean antzerki-tailerra egitea pentsatu zen, eta animatu egin nintzen.

— Zenbat partaide zarete talde horretan?

Orain hamabi gara, hamar mutil eta bi neska, baina hasieran hogeitamar ginen.

Iñigo Txintxurreta

Antzerkirako jaiotako mutila



Jende askok alde egin du.

— Zergatik?

— Lana oso gogorra delako, eta gainera arazo eta tirabira asko ere izaten dira gure artean.

— Orain artean antzerki-obra asko egin al dituzue?

— Beno, batzuk egin ditugu, adibidez "Es que estamos hartas". Lan hau bi gaztetxetan antzeztu dugu, gero beste bat "C.I.R.I.O" izenekoa. Honako hau istorio antimilitarista da. Horrez gain, hainbat esketx ere egin izan ditugu.

— Azkenean lokala ere lortu duzue, ez?

— Bai, hiru urte egon gara kale gorrian, entseiatzeko leku barik, eta azkenean lortu dugu. Udalak utzitako lokalari esker, orain, behintzat, badugu non elkartu eta non entseiatu.

— Dirulaguntzarik jasotzen al duzue nonbaitetik?

— Ez, ez dugu dirulaguntzarik jasotzen. Gure diru-sarrera bakarra txosnetakoa da. Izaten dira bestelako txoiloren batzuk, baina bestelakorik ez. Normalean gure saioak doan izaten dira, gaztetxeetan eta horrela., baina Udala tartean sartzen bada orduan kobratu egiten

dugu, ehun mila pezeta edo horrela, gastuak ordaintzeko lain, jantziak etab. Orain furgoneta erostekotan gaude.

— Antzerkia alde batera utzirik, play-back-ean ere trebea zaitugu. Nola hasi zinen lan horretan?

— Duela bi urte izan zen. Behin, txikiteoan nembilela, Arristik galdetu zidan ea Amaia Antzokirako prestatzen ari ziren ikuskizunean parte hartu nahi nuen, eta nik baietz. Hura zen beti egin nahi izan dudana.

— Horrelako saio bati ekiteko lan handia egin behar da, noski. Noiz hasiko zarete prestaketa lanekin?

— Bakoitzak urtean zehar bere saioa prestatzeko arduraren hartzen du, eta azken hilabeteko larunbat guztietan denak biltzen gara.

— Artista, jaio ala egin egiten da?

— Beno, nik uste dut jaio egiten dela. Ni behintzat txikitatik izan naiz etxeko pailazoa.

— Saioa hasi aurretik urduri jartzen al zara?

— Bai, nahiko urduri jartzen naiz, eta lotsa ere ematen dit antzokira ateratzea, baina behin ateraz gero, ezin da atzera egin, eta oso ondo sentitzen naiz jendaurrean. Esperientzia zoragarria da niretzat.

— Jendeak dioenez, zuk Arrasaterako baino talentu handiagoa duzu? Ez al duzu inoiz pentsatu kanpora ateratzerik?

— Ez, kanpora ateratzea oso arriskutsua da, lana utzi behar da, eta arrakasta lortzea oso zaila da. Gainera, nik ez nuke jasango nire herriatik eta lagunengandik urrun bizitzetik. Gustora nago nagoen bezala. Nire helburua, oraingoz, ondo pasatzea da, eta horrekin nahikoa dela uste dut.

== 66 ==

Nire helburua, oraingoz, ondo pasatzea da, eta horrekin nahikoa dela uste dut"

Korta-Zuazubiskar bikotea txapelaldun


Arrasateko pilotariak Deba Arroako txapelketan erraz nagusitu ziren

Iñaki Korta eta Lordi Zuazubiskar, pilotari arrasatearrek osatzen duten bikoteak, joan den larunbatean Ermuko pilotalekuan Deba Arroko txapelketa lortu zuen, gazte mailan.

Aurten Deba Arroa pilota txapelketa berrogeitalaugarren edizioa jokatu da. Beti bezala, Deba Arroako herri bakoitzetik hiru bikotek hartu dute parte txapelketa honetan, gaztetxo, gazte eta helduen mailetan.

Arrasateko hiru bikoteetatik, baka-rik Iñaki Kortak eta Lordi Zuazubiskarrek osatzen dutenak lortu zuen azken partidurako sailkatzea. Azkenaurrekoetan, Arrasateko bikoteak ez zuen sailkatzeko inolako zailtasunik izan. Korta eta Zuazubiskarrek Ermuko bikotea izan zuten aurrean; kanporaketa erraztasun handiz erabaki zen arrasatearren alde. Ermuan eta Arrasaten jokatu ziren bi partiduetan lortutako emaitzei begiratu gero, argi ikusten da Ermuko bikoteak hamar tantu egiterik ere ez zuela lortu.

Azken partiduko egunean Ermuko



pilotalekua jendez gainezka, alde batean Iñaki Korta eta Lordi Zuazubiskar, bestaldean Mendizabal eta Otaño elgoibartarrak. Partidua hasi eta berehala gauzak arrasatearren alde. Atzekaldean Zuazubiskarrek ez zuen inolako

eragozpenik aurkitu joko a menderatzeko; aurrekaldean berriz, gehiegi arriskatu barik, Iñaki Kortak tantu erabakior eta politik lortu zituen. Gauzak horrela, partidua bukaeran markagailuan 22 eta 12ko emaitza.



Estatuko Hegats-Igeriketa txapelketa

Hilaren 26tik 28ra bitartean, Estatuko Hegats - Igeriketako X. Txapelketa burutuko da Musakolako kiroldegiko igerilekuan. Txapelketaren antolatzaileak, Arrasate Igeri Taldeak, Arrasatera hurbiltzen direnen egonaldia eta mantenua subentzionatu beharko ditu. Oraindik ez dago esaterik Arrasatera zenbat talde etorriko diren, baina talde bakoitzean, hamasei lagun izango direla aipa daiteke. Txapelketa taldeka burutuko da, lau kategoriatan banatuta, seniors eta juniorsetan, emakume eta gizonezkoetan. Guztira 44 proba ikusteko aukera izango da. Txapelketako ekintzen hasiera hilaren 26an izango bada ere, igeriketa probak 27an goizeko 10etan hasiko dira.

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzarak
Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

1986ko azararen 24an. Ikasketak Eskola Politeknikoan egin zituen, eta orain

Roneon ari da lanean. Azken aldi honetan oso ezaguna egin da herrian, besteak beste, antzerki-munduan erakutsi duen trebetasuna dela medio.

— Iñigo, zu saltsa guztietako perrexila zara ez?

— Beno, ez dakit saltsa guztietakoa naizen, baina askotakoa bai behintzat. Orain, "Tunantes del Norte" antzerki-taldean, Konpartsan eta Txarangan nabil, gero ihauterietan. Amaia festibalean ere parte hartzen dut.

— Hainbeste taldetan sartuta egoteak lan handia egin beharra ekarriko du. Zergatik hartzen duzu hainbeste konpromezu?

— Beno, lan handia egin behar dela egia da. Beti ibili behar zara hara eta hona geratu gabe, eta buruhausteak ugari izaten dira; hala ere, niri izugarri gustatzen zaizkit halako saltsak, eta oso ondo pasatzen dut gainera. Egia esan, ez dut aspertzeko astirik izaten.

— Egiten duzunetatik zer duzu gustokoen?

— Antzerkia. Besteak ere politik dira, baina guztietatik bat aukeratzekotan, begiak itxita, antzerkia hartuko nuke.

— Nola hasi zinen "Tunantes del Norte" taldean?

— Egia esan, nik ere ez dakit nola hasi nintzen. Lehenengo "Gurea" okupatu zen, gaztetxea egiteko. Gero, bertako lokalean antzerki-tailerra egitea pentsatu zen, eta animatu egin nintzen.

— Zenbat partaide zarete talde horretan?

Orain hamabi gara, hamar mutil eta bi neska, baina hasieran hogeitamar ginen.

Iñigo Txintxurreta

Antzerkirako jaiotako mutila



Jende askok alde egin du.

— Zergatik?

— Lana oso gogorra delako, eta gainera arazo eta tirabira asko ere izaten dira gure artean.

— Orain artean antzerki-obra asko egin al dituzue?

— Beno, batzuk egin ditugu, adibidez "Es que estamos hartas". Lan hau bi gaztetxetan antzeztu dugu, gero beste bat "C.I.R.I.O" izenekoa. Honako hau istorio antimilitarista da. Horrez gain, hainbat esketx ere egin izan ditugu.

— Azkenean lokala ere lortu duzue, ez?

— Bai, hiru urte egon gara kale gorrian, entseiatzeko leku barik, eta azkenean lortu dugu. Udalak utzitako lokalari esker, orain, behintzat, badugu non elkartu eta non entseiatu.

— Dirulaguntzarik jasotzen al duzue nonbaitetik?

— Ez, ez dugu dirulaguntzarik jasotzen. Gure diru-sarrera bakarra txosnetakoa da. Izaten dira beste-lako txoiloren batzuk, baina bestelakorik ez. Normalean gure saioak doan izaten dira, gaztetxeetan eta horrela., baina Udala tartean sartzen bada orduan kobratu egiten

dugu, ehun mila pezeta edo horrela, gastuak ordaintzeko lain, jantziak etab. Orain furgoneta erostekotan gaude.

— Antzerkia alde batera utzirik, play-back-ean ere trebea zaitugu. Nola hasi zinen lan horretan?

— Duela bi urte izan zen. Behin, txikiteoan nembilela, Arristik galdetu zidan ea Amaia Antzokirako prestatzen ari ziren ikuskizunean parte hartu nahi nuen, eta nik baietz. Hura zen beti egin nahi izan dudana.

— Horrelako saio bati ekiteko lan handia egin behar da, noski. Noiz hasiko zarete prestaketa lanekin?

— Bakoitzak urtean zehar bere saioa prestatzeko ardura hartzen du, eta azken hilabeteko larunbat guztietan denak biltzen gara.

— Artista, jaio ala egin egiten da?

— Beno, nik uste dut jaio egiten dela. Ni behintzat txikitatik izan naiz etxeko pailazoa.

— Saioa hasi aurretik urduri jartzen al zara?

— Bai, nahiko urduri jartzen naiz, eta lotsa ere ematen dit antzokira ateratzea, baina behin ateraz gero, ezin da atzera egin, eta oso ondo sentitzen naiz jendaurrean. Esperientzia zoragarria da niretzat.

— Jendeak dioenez, zuk Arrasaterako baino talentu handiagoa duzu? Ez al duzu inoiz pentsatu kanpora aterazterik?

— Ez, kanpora ateratzea oso arriskutsua da, lana utzi behar da, eta arrakasta lortzea oso zaila da. Gainera, nik ez nuke jasango nire herritik eta lagunengandik urrun bizitzetik. Gustora nago nagoen bezala. Nire helburua, oraingoz, ondo pasatzea da, eta horrekin nahikoa dela uste dut.

— **“Nire helburua, oraingoz, ondo pasatzea da, eta horrekin nahikoa dela uste dut”**

Korta-Zuazubiskar bikotea txapeldun

Arrasateko pilotariak Deba Arroako txapelketan erraz nagusitu ziren

Iñaki Korta eta Lordi Zuazubiskar, pilotari arrasatearrek osatzen duten bikoteak, joan den larunbatean Ermuko pilotalekuan Deba Arroko txapelketa lortu zuten, gazte mailan.

Aurten Deba Arroa pilota txapelketako berrogeitalaugarren edizioa jokatu da. Beti bezala, Deba Arroako herri bakoitzetik hiru bikotek hartu dute parte txapelketa honetan, gaztetxo, gazte eta helduen mailetan.

Arrasateko hiru bikoteetatik, baka-rik Iñaki Kortak eta Lordi Zuazubis- karrek osatzen dutenak lortu zuten azken partidurako sailkatzea. Azkenaurre-koetan, Arrasateko bikoteak ez zuten sailkatzeko inolako zailtasunik izan. Korta eta Zuazubiskarrek Ermuko bikotea izan zuten aurrean; kanporaketa erraztasun handiz erabaki zen arrasatearren alde. Ermuan eta Arrasaten jo- katu ziren bi partiduetan lortutako emaitzei begiraturaz gero, argi ikusten da Ermuko bikoteak hamar tantu egiterik ere ez zuela lortu.

Azken partiduko egunean Ermuko



pilotalekua jendez gainezka, alde ba- tean Iñaki Korta eta Lordi Zuazubiskar, bestaldean Mendizabal eta Otaño el- goibartarrak. Partidua hasi eta berehala gauzak arrasatearren alde. Atzekaldean Zuazubiskarrek ez zuten inolako

eragozpenik aurkitu jokoan menderatze- ko; aurrekaldean berriz, gehiegi arris- katu barik, Iñaki Kortak tantu erabakior eta politak lortu zituen. Gauzak horrela, partidua bukaeran markagailuan 22 eta 12ko emaitza.



Estatuko Hegats-Igeriketa txapelketa

Hilaren 26tik 28ra bitartean, Estatuko Hegats - Igerike- tako X. Txapelketa burutuko da Musakolako kiroldegiko igerilekuan. Txapelketaren antolatzaileak, Arrasate Igeri Taldeak, Arrasatera hurbiltzen direnen egonaldia eta mantenua subentzionatu beharko ditu. Oraindik ez dago esaterik Arrasatera zenbat talde etorriko diren, baina talde bakoitzean, hamasei lagun izango direla aipa daiteke. Txapelketa taldeka burutuko da, lau kategoriatan banatuta, seniors eta juniorsetan, emakume eta gizonezkoetan. Guztira 44 proba ikusteko aukera izango da. Txapelketako ekintzen hasiera hilaren 26an izango bada ere, igeriketa probak 27an goizeko 10etan hasiko dira.

MARTINEZ
aroztegia
 Sukaldetan
 neurri guztietako
 altzariak
 Araba Etorbidea 13,
 Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY
 GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

JULIAN GOROSPE

Txirrindulari aparta

Julian Gorospe mañariarrak, garaipen berria lortu zuen joan den igandean Arrasate eta Gatzagaren arteko erlojuaren aurkako proban. "Sekula ez da erraza izaten, baina motza zenez eta txirrindulari guxi geundenez, beste batzuetan baino errazagoa izan da".

Garaipen inportantea izanda ere, joan den igandekoa Julian Gorosperekin bizitzan, garaipen bat gehiago besterik ez zen izan. Afizionatu mailan zegoela, izugarritzko etorkizuna iragarri zion jende askok, baita Bernard Hinault berak ere. Azkenean ez da horrenbesterakoa izan. "Jendeak ilusio handiak egin zituen nirekin. Normala dela uste dut, afizionatueta lasterketa ugari irabazi bait nituen, baita Nazioarteko Sari Handia ere. Gauza onak egin ditut txirrindularitzan. Itzuli handirik ez dut irabazi, baina postu onak egin bai. Oso pozik nago egindakoarekin".

Itzuli txiki ugari, lidergoa itzuli handietan, Tourrean etapa bat... seguruen lagun baten eraginez bizikleta gainean ibiltzen hasi zenean, horrelakoekin ametsik ere ez zuen egingo mañariarrak. "Hamabost urte nituen

PODIUMA



bizikletan ibiltzen hasi nintzenean. Hori bai, afizioa txikitatik. Orduan, Mercx, Ocaña, Fuente... eta horrelakoak miresten genituen".

Batzuk mirestetik bera mirestua izatera, batez ere bizkaitarren artean. Dena dela, bizkaitarrek bihotza erditurik daukate Marino Lejarreta eta Julian Gorosperekin artean. "Azken urteetan erakutsi duen moduan, Marino ni baino txirrindulari hobea da. Hala ere, ni gustora nago orain arte egindakoarekin". Marinok datorren urtean esango dio agur txirrindularitzari, Julian Gorospek oraindik ez daki erretiratzeko erabakia noiz iritsiko zaion. Orduan, zer geldituko zaigu euskaldunoi? "Hemen dagoen zaletasuna kontuan hartuta ez dut uste txirrindulari falta izango denik. Orain ere gazteak gogor datoz atzetik: Zarra-beitia, Lazpiur, Garmendia...".

◆ Futbito txapelketa

"San Bartolomé saria" izenburupean, Musakolako kiroldegian datorren asteburuan 24 orduko futbito txapelketa jokatu da. Txapelketaren irabazleek trofeoa, bildotsa eta sorpresa bat eramango dituzte, bigarrenak trofeoa eta urdaiazpikoa; hirugarrenak gelditzen den taldeak trofeoa eta 4 kilo txuleta. Laugarren sailkatuak sorpresa bat.

◆ Gay laugarren Bartzelonan

Josean Gay arrasatearrak, iaz irabazitako Estatuko promesen txapelkun titulua galdu zuen Bartzelonan, joan den igandean burututako 200 metroko proban. Gayk hirugarren sailkatutako mutilaren denbora bera egin zuen, baina foto finish-ak laugarren postura bidali zuen. Aurten 21 segundu eta 82 ehuneneko marka badauka ere, igandean Josean Gayk 22 segundu eta 22 ehuneneko denbora egin zuen. Korrikalari arrasatearra Bartzelonatik bueltan ez zegoen bat ere pozik. Larunbat honetan, Gay Soriana doa Euskadiko selekzioarekin 400 metroko proban parte hartzera. Ea zorte hoberik duen!

◆ Obrak kiroldegian

Klimatizazio instalakuntza hobetzeko lanak hasi dituztela eta, kiroldegiko dutxetan ez da ur berorik egongo datorren irailera arte.

◆ Makalu

Makalurako espedizioa martxan dago. Lehenengo 400 kilo material bidali dituzte Katmandura. Espediziorako lehen partaideak datorren astean abiatuko dira Nepal ingurura, gainontzekoak hilaren amaieran joango dira. Arlutz, Urbaltz, Zارايا, Expres, Azken Bazter, Gurea, Monte, Aldatz eta Mirentxu tabernetan atxabeltarrei laguntzeko kamisetak saltzen dira.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABAETA

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea 43, Arrasate

Batuta

Jose Ramon Elkoro

Atxabaltarra da eta 29 urte ditu. Bere ikasketak San Viatorren burutu zituen. Hamalau urtekin hasi zen txistua ikasten bere herrian, baina ofizialki baliorik ez zuela eta, bertan behera uztea erabaki zuen. Hainbat urtetan musika-mundutik kanpo ibili ondoren, hamatzortzirekin Arrasate Musikalen sartu, eta bertan, solfeoa eta tronpeta ikasten ari izan da bost urtetan zehar. Gero, perkusioa probatzea pentsatu, eta harez gero mundu horretan murgildua dabil. Orain dela hiru urte Donostiara joan zen, eta bertan, hainbat lekutan ibili izan da perkusioa ikasten; bestak beste, Kontserbatorioan eta "Jazzle" eskolan.

"Donostiara joateak eragin handia izan du nire musika-karreran, bertan, Perkusio ikasketak egiteaz gain, jazz-munduarekin harremanetan jartzeko aukera izan dudalako batez ere. Hasiera batean "Konbo Jazzle" eta "Txintzarri" taldeetan jotzen hasi nintzen, eta orain dela bi urte, nik eta beste donostiar bik "Patxi Goialde Trio" izeneko taldea sortu



genuen, eta dagoeneko kontzertu ugari eman ditugu han eta hemen". Gehienbat kultur etxeetan, eta Donostiako hainbat taldek antolatutako Jazz-kontzertuetan jotzen dute. Azken kontzertua Monterronen eman dute, joan den astebukeraren.

"Jazza ezezik musika klasikoa ere probatu izan dut, Arrasate Musikaleko Orkestran perkusioa jotzen ibili izana bait naiz. Hala ere, jazzak askoz gehiago gustatzen zait".

Gaur egun, Zaragozara joaten da bere ikasketak amaitzera, eta horrez gain, Arrasate Musikalen eta "Jazzle"n ari da perkusioa irakasten.

"Euskadin, Europako beste herriekin konparatuz, jazz-aren egoera oso kaxkarra da. Udan antolatzen diren Hamabostaldiez gain, ezer gutxi esan daiteke gure herriko jazz-ari buruz. Beraz, besteen mailan jarri nahi badugu behintzat, badugu, bai, non saiatu".


"Hemen, Europako herrien aldean, jazz-aren egoera oso kaxkarra da"

Txio txioak

Goikobalu grabazioa prestatzen

Arrasateko abesbatzak, larunbat honetan, egun osoan zehar, bere erreperitorioaren grabazioa egingo du Arabako Errioxako Villabuena elizan. Grabazio hori orain arte egindako lehenengoa da, eta oraingoz frogatzen da bere baxerik ez da izango. Helburua ez da Goikobaluren lana jendaurrean azaltzea, bilduma-lana baizik; hau da, Arrasateko abesbatzak kanpora begira bere burua aurkezteko balioko duen agiria, nolabait esatearren. Bertan, orain arteko kantez gain, "Mesia" ere kantatuko dute.

Oraingoa ere Aitor Olea izango da organojole. Grabazio horretarako erabiliko den organoa berezia izango da. Goikobaluko arduradunek adierazitakoaren arabera, aurrerantzean grabazio gehiago eta garrantzitsuagoak egiteko asmoa dute.



KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE



Argazkia: Institutuko argazki taldea

J

amaikako hondartzak, ohe-sarea bi palmondoren artean, ondoko mahaiko irratian reggae musika eta edari freskagarria, hatzamar artean porro bat, bertako emakume beltzaranak berriz haizea ematen... kolonien garaiko amets zaharra. Euskadi tropikalaren barnean egonda ere, Arrasatek ez du aipatutakoarekin zer ikusirik. Frantzizkotarren komentu aurreko palmondoak ez du Jamaikakoen antz handirik, ezta inguruak Jamaikako hare finezko hondartzekin... eta zer esanik ez, palmondoan atsedean hartzen duen mutikoak ametsari haizea ematen zioten emakume beltzaranekin. Zer egingo diogu bada? Jamaikarik ez dugunok Euskal Herriko hondartzekin konformatu behar!

KANPAIA

e r r e t e g i a

Proba ezazue sukaldari arrasatearrak egindako
itsasapoa eta idi-txuleta bereziak!

Meagarako bidean. **GETARIA** Tfnoa: 83 04 40

**Aparkaleku
propioa**

Zer nahiago?

Ane Miren Guesmes Udalako Ingurugiro- Eskolako irakaslea



• **Udalekuak ala eskulanak?**

Udalekuak. Bertako giroa eta jendearekiko harremana oso gogokodut.

• **Betaurrekoak ala lentilak?**

Lentilak nahiago ditut, nahiz eta betaurrekoak erabili.

• **Ikastaroak eman ala hartu?**

Hartzea nahiago dut ematea baino.

• **Kabiarra ala patata-tortila?**

Patata-tortila, zalantzarik gabe gainera.

• **Lorak ala animaliak?**

Animaliak gogoko ditut, baina nahiago ditut lorak.

• **Berebil handiak ala txikiak?**

Txikiak nahiago ditut handiak baino.

• **Bizi, bakarrik ala gurasoekin?**

Bakarrik.

• **Ingelesa ala frantsesa?**

Ingelesa.

• **Rubioak ala morenoak?**

Morenoak, zalantzarik barik.

• **Begi beltzak ala urdinak?**

Niri berdeak gustatzen zaizkit.

• **Bizitzeko, Urkulu ala Portaloia?**

Urkulun askoz hobeto.

• **Letrak ala zientziak?**

Zientziak.

• **Gaupasa ala goizean jaiki eta mendira?**

Mendira joatea nahiago dut. Ez zait gustatzen berandura arte kalean ibiltzea.

• **Footing ala bizikletan?**

Bizikletan.

Igarkizunak

Landareak

1. Baserrian jaioa baserrian hazia moztzen duenari bustitzen dio begia.

2. Bakarka ez gara ezer ez Euskadin eta ez Indian, denok batera, behar bezala, altxor ederra aletegian.

3. Ez du txapelik baina bai burua, orririk badu eta ez da liburua.

4. Azokan erosi ditut ederrak ziren ustez, etxera etortzean utzi naute negarrez.

5. Kutxa txikiak gogor estaliak, sarrailarik gabe giltzaz itxiak; nahi ditu haurrak sarri jan.....

6. Fruta gozo-gozoa naiz txiki-txikia eta gorria, pilotik bat hartu, bai eta denek irten nahi ia.

7. Burua behean buztana airean, ez bada ere satorra gainean du lurra, baldin baduzu mahai gainean laster izango zartaginean.

Soluzioak: 1. Kipula, 2. Garia, 3. Zuhaitza, 4. Kipula, 5. Intxaurrak, 6. Gerezia, 7. Kipula

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE


UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

UDA KO

ANTZERKI EGUNA



Uztailak 20, larunbata

.....

• Arratsaldeko 7etatik aurrera herriko kaleetatik zehar
TRAPU ZAHARRA antzerki taldeak **"OCCIDENT PARADISE"**

• Gaueko 10.30etatik aurrera Manterron Parkean, **TAUN-TAUN** txotxongilo
taldeak **"BI KATE"**.

Sarrera doan

Uztailak 24, asteazkena

.....

Monterron Parkean,
Gaueko 10.30etan.

TXEKOSLOVAKIAKO SARISIAN TALDE FOLKLORIKOA.

Sarrera
500 PTA

Gazte
Txartelarekin
300 PTA



Aste gazte

"Gaztaroanez dena lasterkatu zahartzaroan behar da galopatu".

Esaera zaharra.



tzaileak: estatu espainolean bizi diren irakasle edota profesionalak. Dirulaguntza: 100.000 PTA. Epea: abuztuak 5.

- Euskarazko literatur lanak sortarazi eta jatorrizko euskarazkoetatik beste edozein hizkuntzatarako itzulpenak egiteko bekak. Epea: abuztuak 30.

Lanpostuak

- Eibarko Udalak: Gizarte - Laguntzaile bi, Informatikako Laguntzaile - teknikari bi, Lorazaintzan laguntzaile - teknikaria, peoia, hiru udaltzain, hiru administrari laguntzaile, ekonomia eta enplegurako erdi mailako teknikaria, iturgina, administraria, menpekoa, injinerua, arkitekto tekniko bi eta inspekzio fiskalerako laguntzailea (GAO 88, 90). Izena emateko epea: 91 - 07 - 24.

- Sestaoko Udalak kultur animatzaile lanpostua bete-

tzeko deialdia egin du. (BOB 91 - 04 - 12, BOE 91 - 07 - 30). Izena emateko epea: uztailak 30.

Lehiaketak

- Joan den astean iragarritako Mutrikuko XI. Margo Sarietaren eguna aldatu dute: uztailaren 25ean izan beharrean, 28an (igandea) izango da.

- Komiki lehiaketa. 30 urtetik beherakoei zuzendua. Lanak: zuribeltzean. Teknika eta gai librean. Sariak: 100.000, 50.000 eta 25.000 PTA. Epea: uztailak 26.

- VI. Poesia Lehiaketa, gazteleraz. Gai librea. Sari bakarra: 500.000 PTA eta diploma. Epea: irailak 15.

Arteleku-tailerrak

- Pintura tailerra. Abuztuaren 21etik irailaren 20a arte. Ordutegia: 9etatik 20etara. Inskripzioak: abuztuaren 9a arte. Matrikula:

13.000 PTA

- Serigrafia tailerra. Irailaren 2tik urriaren 31a arte. Ordutegi trinkoa. Inskripzioa: abuztuaren 20a arte. Matrikula: 34.000 PTA

Jaialdiak

- Donostiako Jazzaldia: uztailak 20 - 25. Inoiz baino egitarau zabalagoa aurten: reggae, blues, rythm & blues, jazz - pop, jazz - rock, afro... beste askoren artean: Carmen, Donovan, Bob Marley, Benny Carter, Willy de Ville eta Santana. Aurten, kontzertu guztiak Anoetako belodromoan izango dira.

Bekak

- "Pepinteres Europeas" bekak. 20 - 30 urte bitarteko artista gazteei zuzendua. Helburua: arte - egitarauak burutzea, Europako zenbait hiritan. Epea: 91 - 07 - 30.

- Nekazaritza eta arrantza arloetan ikerketa - proiektuak burutzeko bekak. Eskatzaileak: lizentziatuak. Epea: uztailak 31. (EHAA 91 - 07 - 10).

- Musika ikasketak sakontzeko bekak. Eska-

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



ARRASATEko UDALA

UEUra JOATEKO BEKAK

Uztailaren 15etik 27ra bitartean Iruñean Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen duten arrasatearrentzat bekak ematen ditu Arrasateko Udalak. Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin 79 09 00 tfnora. edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

ETXEBIZITZAK

- Lokala alokatzen da Uribe auzoan, 35m² eta erabiltzeko prest. Informazioa: 7984 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Dei egin 79 10 60 tfnora.
- Gela bat bi oherekin olokatzen da. Dei egin 79 07 73 tfnora.
- Hiru irakaslek etxebizitza alokatu behar dugu. Tfnoa: 88 28 63.
- Andra euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Goizez 8etatik 1a arte. Tfnoa: 79 50 41.
- Erguinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logeala, egongela, sukalde, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrakoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Lokala alokatuko nuke ofizina bezala erabiltzeko. Tfnoa: 79 93 06.
- Gela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon, (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.

- Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 21 56.
- Edozein lan egiteko prest nago, nahiz eta hispaniar filologian lizentziatua izan. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- Fisikarako eta kimikarako mailua behar da. (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- Fisikarako eta kimikarako mailua behar da (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- Neska prest lanak egiteko. Dei egin 79 49 05 tfnora.
- Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Andra euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Klase partikularrak edo taldetan ematen dira (Españiar hizkuntza, literatura, latin eta ingelesa) Tfnoa: 79 10 61. Goio.
- Euskara, ingelesa eta OHOKO klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 90 08.

- Bi hilabete t'erdiko txakurkumeak salgai. Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.
- Iozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta Jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean. Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 tfnotara. Rosi.
- Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai, aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, extra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA. tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 97 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06

DENETARIK

- Urrezko eskuturrekoak galdu nuen, harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- Argazki makina eramateko poltsa bat aurkitu genuen Udalan. Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Edurne) edo 79 52 80 tfnora. arratsaldean. (Miren).
- Txakur txiki bat galdu dugu. Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- Nortasun Agiria galdu dut. Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.

SALEROSKETAK

- R-14 GTL berebila salgai, ITVA pasatua. Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- Seat Ritmo salgai. Dei egin 79 73 02 tfnora.
- Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai, llanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 40.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- Neskentzako paseorako Peugeot bizikleta salgai. Ia berria. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.
- Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.

LANA

- Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- Tailer batean lan egingo nuke mekanika aprendiz moduan. Tfnoa: 79 96 10.
- Ilepaindegi batean egingo nuke lan. Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.



ARRASATEN HILDAKOAK



Bastardo Alonso, Frutuoso
uztailaren 9an. 86 urte.

Gonzalez Mesonero, Anastasio
uztailaren 11n. 87 urte.

Heriz Lamarain, Maria
uztailaren 13an. 87 urte.

Heriz Ezkurra, Carmen
uztailaren 17an. 62 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Avenida taberna

San Andres auzoko zure taberna!

Bañez Dk. 11,

**I
R
TABERNA
T
I**

Girorik onena
gure tabernan

Ferrerias kalea. Tfnoa: 79 71 80, Arrasate



Lezetxikiko koban, Garagartzan. 1960

Justo Jauregi abade garagartzarrak eta haren anaia Felixek, artean 30 eta 14 urtekoak, topatu zuten 1930ean *Lezetxiki* ko koba, Bostate izeneko muinoaren ekialdean. Garagartzako maisuaren seme nagusia On Jose Migel Barandiaranen ikaslea izana zen Gasteizko apaizgaitegian eta bazituen kobei buruz irakasleak emandako ideia batzuk. Felixekin batera, aitzurra eta galbahea hartu eta kobazuloko lurra


aztertzen hasi ziren, sokak eta neurriak erabiliz. Sukarri eta puntzoi batzuk topatu zituzten. On Joxe Migeli idatzi eta aurkikuntzaren berri eman zioten. Hark, inportanteak zirela eta gordetzeko erantzun zien.

1955ean, zenbait esplorazio egin eta gero, On Joxe Migeli eman zitzaion *Lezetxiki* aztertzeke enkaragua. 1964ean, bederatzigarren kanpainan, bederatzi metroko sakoneran, beste koba bat agertu zen, *Leibar* izenekoa eta han aurkikuntzarik inportanteena: 60.000 urte gutxienez zituen pertsona baten besondoa.

Ikerlarien ustez, pertsona hori 35 urte inguruko emakumea izan zitekeen.

Gaurko argazkia 1960ko kanpainan atera zen. Ikerlariak kanpoko ikasle eta mondragoetarren laguntza izaten zuten. Zutik, ezkerretik hasita, **On Jose Migel Barandiaran, Valentin Letona, Felipe Leibar, Domingo Fernandez** (Arabako Arkeologia-ordezkarria), **Jose Letona eta Tomas Zabarte.**

Jarrita, Ana Maria Muñoz bartzelonarra, **Mari Carmen La Lastra** santandertarra eta **Maria Ana de la Cuadra Salcedo** madrildarra, **Madrilgo Arkeologi** ikasleak.



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxabea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE




HAURTOKO

**Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE**


UDALEKU IREKIAK (AED)

5. maila



Ze polita direnik
eta zu nota zura polita
ala zatarra. Inkin,
e.a. zu bayiatzen

• Bilatu ezazu Arrasate Press.




ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

JOSTEKO



OIHALAK

Errekabarren 20,
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

Puntuak

Monje japoniar batek basoan zuhaitzak behatuz emon zuen bere bizitza. Esaten zen zuhaitzez gehien zekiena bera baino besterik ez zela munduan. Ez zuen apenas ezer idatzi. Soilik, heriotza hurbilean somatu zuenean papera eta tinta eskañu, eta honako hauxe utzi zuen etorkizunerako orri ximurtu zatar batean idatzirik: "Zuhaitz guztiek badute puntu bat, zeinean zanpatu edo putz eginez gero, bertan behera erortzen diren".

Ni ez naiz japoniar, ez naiz mendian galdutako inongo gomentutan bizi. Baina parketik igarotzen naizenetan gogoak markak marrazten dizkit arboletan hor eta hor, katedraletan badut ezer ukitzeko halako beldur pittin bat. Jakitun, barre egiten dut medailak eta kondekorazioak -harro- bihotz ondoan erasten dituzten jende horretaz, isildu berriz urkatu batekin baso ilunetan topo egiten dudanean, bekaizkor aidetik dabilzan hegaztiei orduak eta orduak joaten zaizkit begira. Ikaratu egin nintzen alkondarako lehen botoia desabrotxatu zenidan arrats gorri hartan.

Denbora aurrera pasa ahala konturatu egin naiz, ordea, japoniar monje hura jakin behar denaren erdiraino iritsi zela. Aurkitu egin bait dut mugimenduak zein malgotasunak flexio puntuak biderkatu egiten dituztela. Horregatik izaten zaigu horren zaila haizea jotzea, sugarrak edo ibaiak geratzea, beti da jarioak ihes egiten digun bihurgunen bat. Eta behin eta berriro frogatzen dut legea: txoriak ez dira jausten, ostadarrak non hasi eta non bukatu ez daki inork. Zure gorputzeko puntu guztiak errekorritu ondoren ohartu egiten dituzte ezinezko dugula oso osorik ta behin batera ebatzea, zerbait badela nire ezagutzatik at geratuko dena, garrak, ibai ta hego haizeen antzo harrapa ezina zarela, eta berorregatik natzaizu gauero besoak zabal-zabalik erakutsiz joaten, hemen naukazu, hemen nago, nik ezin zaitut eta harrapatu, soilki desiratu baizik.

LORAMENDI  **KIROLAK**

Presta itzazu zuere oporrak
Tfnoa: 79 97 24 ARRASATE

- Kanping-a
- Hondartza
- Mendia
- Kirol moda
- Zapatilak

22 ASTELEHENA

- 20.00 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 21.00 Berriak. Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 21.20 Saltsa-maltsan. Jaione Olabek, alkatxofak almejekin prestatuko ditu.



21.30 Berriak (errepikaldia)

23 ASTEARTEA

- 12.00 Teletestua.
- 13.00 Berriak (bezperakoa).
- 13.20 Saltsa-maltsan (bezperakoa).
- 13.30 Berriak (errepikaldia).

Azken boladan lanean gogor izan ondoren, ATBko langileoi ere oporrak hartzeko garaia heldu zaigu. Irailaren 2an izango gaituzu berriro zuen etxeetan indarberrituta.

Sorpresa bat baino gehiago prestatuko dugu ordurako, programazioa berriro eta hobetu nahi dugu eta.

Ordura arte ondo pasau eta formal ibili!

24 ASTEAZKENA

- 20.00 Teletestua.
- 21.00 Berriak. Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 21.20 Zenbat buru, hainbat aburu. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Loiolako San Inazioaren 500. urteurrena.




22.10 Berriak (errepikaldia).

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuen du bere K serieko motore berria -16V GTi-an-aleazio arinaz gina 95CVko indarra eman liezaiokeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100



ROVER

CREDIT

* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garralo-gastuak barme.
Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko lantak. Aurreko lehoen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Doikuntza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



Iaz egin zuen moduan, aurtan ere **Jon Anduezak** "Ricardo Arregi" saria irabazi du. Joni "Txomin Pineda: berea ez den gerran" erreportaiagatik eman diote saria, Berrigara aldizkarian argitaratutakoa. Zorionak bada, gaur egun ATBn lana egiten duen kazetari honi.

Telebegi

Aldaketa garaiak dira hauek Arrasate Telebistan, eta ikusi egin behar aldaketa hauek nora eramaten duten proiektua aurrerantzean.

Orain arte Joxe Aranzabal izan da bertako zuzendaria, proiektua bultzatu, finkatu eta errealitate bihurtuz. Lan-taldea ere maila handi batean aldatu egin da zuzendariarekin batera, eta baliteke produktua bera ere aldatzea laster batean.

Atzera begira zera esango nuke, hainbat pertsonaren lanari esker, telebista duina lortu dela erabat. Hasiera batean proiektu hutsa zen ideia errealitate bihurtuz. Euskarak sartu beharra dauka ikusentzuzko komunikabideetan, hauek bait dira etorkizunean aginduko dutenak. Era berean, Arrasate Telebistaren sortzeaz aberastu egin da herria.

Balantzea ezin hobea da beraz. Gauzak honela, Arrasateko komunikabide euskaldunen bilakaera aztertu beharko da noizbait eta txaubinismotan jausi barik, honen garrantzia azpimarratu, beste herri batzuetan esenplu gisa izan daitekeenagatik. Dena den, honen garrantzia ez da soilik komunikabide hauek euskaraz direla, komunikatzeko bide berriak jorratu dituela baizik, ohizko bideetatik alde eginez.

Orain arteko balantzea, aipatu bezala, erabat positiboa. Geroaz egongo da hitz egiteko aukera.

ANDONI URZELAI

Telebelarri

◆ Guk proposamena egin genion HBko Alkateari, onartu egin zigun, eta halaxe sartzen gara orduan, lana egiteko gozoz".

◆ Ez da logikoa. Herri honen erronka nagusia bakea lortzea den bitartean, Gobernu Batzordean parte hartzerakoan, EA eta EAJ HBren zutabe bihurtu dira, bake horren aurka eginez".

Aitor Orobengoak Berriak saioan.

J. M. Loitik Berriak saioan.



Dorletako Ama Kriteriuma jokatzeko zela eta, hantxe izan genituen ATBko kamarak. Denetik egin beharra izaten da zuei ahalik eta irudirik onenak eskaintzeko; kasu honetan, hor ikusten dugu **Josu Galdos** Kawasakiaren gainean, zutik, Claudio Carudel jokey ezaguna bailitzan.



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Berehalakoan emango diozu antza zuregana datorrenari nondik nora dabilen. Adarra jo nahi izango dizutenek jai izango dute datozen egunetan, zu zeu izango bait zara norabidea markatuko duena. Buru argi egongo zara edonoren intentzioa antzemateko.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

A zelako marxa daramazun, Leo. Bizipoza eta borrohaizea darizu zelua guztietatik. Zure emozioak noiz eta non bota asmatzea izango da nekezena, denak ez bait dira zu bezain umoretsu egongo. Pot eginda amaituko duzu eguna. Neke gozoa.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zure ideiak eta pentsakera jakin araztea izango da datozen egunetako zeregina. Gainera ez dira halamoduzko eritziak izango, edonork atera ahal izango du probetxua zuk eskainiko diozun alternatibari.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zure benetako izakerarekin loturik dagoen ekintzaren bat egitekotan bazara, aprobetxa izazu datozen egunak gerorako laga barik. Dena zure alde daukazu. Zure lagunarekiko harremana oso osokoa izango da ideia guztietan bat etorriko zaretelako.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Jakinmina nagusituko da zuregan Virgo, edozertaz jakin nahi izango duzu. Aprobetxa ezazu dena jakin nahi izate hori probetxua aterako diozun zeozertan. Maiteminduta zaude eta hor ere badaukazu non jorratu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zure nahiak betetzeko oztopoak jarriko dizkizula uste duzun norbait azalduko da. Ez kasurik egin, bekaizkeria hutsez aholkatuko zaitu eta. Ziurtasunez jokaten ari bazara eutsi zeureari, bestea hor konpon. Epe luzerako proiektuak hasiko dituzu.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Baliteke esango duzuna bat ez etortzea pentsatzen duzunarekin. Besteak pozik ikustea izango da zure ilusioa. Zeure barneari entzuteko astia har ezazu eta hortik abia zaitetz. Lasaiago hartuko duzu eginbeharra eta hobeto beteko. Ziurtasun eza.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ezina egin ez aldatzen da, Libra. Geldo xamar zaude eginbeharrari ezin diozula aurre egin pentsatzen. Ez dago pasa ezineko hormarik. Jarrera aldatzea baino ez da. Ikusiko duzu zein erraz aldatzen den oraingo ikuspegi ezkor hori. Transformazioa.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Urduri zabilta eta ez daukazu horretarako arrazoirik. Zeureaz arduraz zaitetz, besteak konponduko dira eta. Urdaila ez daukazu bere onean. Jatorduak arinak eta bere garaian egin itzazu. Ariketa fisikoa ere primeran etorriko zaizu tentsioa baretzeko.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Bikoterik gabe zaudetenok harreman sendo bat hasteko aparteko aukera izango duzue datozen egunetan. Xarmant eta maitagarri egongo zarete eta ez da egongo zuen eskaintza ukatuko duenik. Animo badal



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gero eta hurbilago dauden oporrak izan litezke ohiturak aldatzeko egunik aproposenak. Ezinbestekoa duzu Scorpio. Ondotxo dakizu zuk gainera zer den on egiten dizuna. Hala bada, ez egon dudamudatan eta ausar zaitetz gogoko duzuna egitera.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Aspaldidanik daukazun proiektua finkatzeko momentu aproposa da oraingoa, Piscis. Lagunarteko harremana primerakoa izango da asmoei eusteko. Zure azukre kokorra ere hor izango duzu behar duzunean laguntzeko prest.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEAK

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

Mendi taberna

**Mendi da
zure etxea**

Maalako Errabala 4, Tfnoa: 79 20 54




Deba Garaia

Inmueble eta finantza agentzia

Artekaria: Jesus M^a Markaide

Zerbitzu profesionalak

Iturriotz 23 etxabea,
Tfnoa: 77 13 02 eta 77 14 27
Arrasate



UDA HONETAN

KADETT


150.000

ptako.

BEHERAPENA

Uda honetan eros ezazu Opel Kadett bat eta baliozaitez eskaintza paregabe honetaz: Kadett gamako edozein ibilgailu erostean 150.000 ptakao. beherapena.

Uda honetan gozaezazu Opel Kadett -arekin. 150.000 pta. gutxiago.



Betidanik ekologikoak, nahi duzunean. Berunik gabe.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Kontzesionari Ofizialak

Iparraguirre. Tfnoa: 72 33 71

OPEL 
Hobeak esperentziaz